

## MERKATU SEGMENTAZIOA

Hurrengo urteari begira, urte gogorak datozkigula aurreikusten dugu, unibertsitatera joango baikara eta bat baino gehiagok etxetik kanpo pisu hartu edo erresidentzia batean izena eman behar izango baitu. Beraz, independizatzearekin batera, gastuen erantzukizuna hartzea ezinbestekoa da. Horretarako, etxe bateko gastuak ahalik eta gehien murrizten saiatu beharra dago, gazteak izanik, soldatarik ez dugulako edo eta oso txikia delako. Gurasoen kontura bizitzen egoteko epea amaituko denez, dirua kudeatzen eta ondo estimatzen hasteko unean gaude. Hortaz, etxe bat mantentzeak dituen kostuak zeintzuk diren jakin beharra dago. Horretan ari ginela, elektrizitatea/uraren faktura etxetik gastu handiena zela ohartu ginen eta buruari apur bat eman ostean, garbigailua duen bizikleta sortzea bururatu zitzaigun. Gazteok orokorrean sukaldatzeko trebetasun gutxi dugunez, eta denbora soberan ere ez dugunez, etxetik joaten garenean, elikagai ez osasuntsuak jateko joera dugu. Horretaz gain, garbiketa lanak kentzen duten denbora gehiegizkoa da unibertsitateko ikasle batentzat. Horri aurre egiteko kirola eta garbiketa bateratuz, zerbitzu bereizgarri hau etorri zitzaigun burura. Horrela gazteak sasoian mantenduko lirateke eta ez lukete gimnasioa ordaindu beharko, arropak garbitzen ari diren heinean, kirola egiten ariko baitziren. Eta gainera, bakoitzaren esfortzua erabiliz lortzen denez helburua, garbiketa eta kirola egin ostean, zure buruaz arro sentituko zinateke egindako lan ederragatik. Honi esker, hilabete amaieran iritsiko zen faktura askoz ere txikiagoa izango litzateke, gym-eko kuota eta uraren fakturan aurreztuko baikenuen. Hortaz, soluzio baliagarri bat izango litzatekeela pentsatzen dugu, bereziki independizatzen ari diren gazteentzat, kirolari amorratuentzat edota ziklismo munduan oso murgildurik daudenentzat. Orokorrean, gastuetan aurreztu nahi duen orori primeran etor dakiok.